

Bilera-akta  
**HABEko Zuzendaritza Batzordea**

**Eguna:** 2013-01-07, astelehena      **Hasiera-ordua:** 12:00      **Bukaera-ordua:** 12:15

**Bertaratuak**

Cristina Uriarte Toledo and., Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua  
Patxi Bastarrika Galparsoro jn., Hizkuntza Politikarako sailburuordea  
Nerea Alustiza Alonso and., HPSko Herri Administrazioetan Euskara Normalizatzeko zuzendaria  
Encar Echazarra Huguet and., HAEE-IVAPeko zuzendaria  
Miren Dobaran Urrutia and., Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia  
Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiko ordezkaria  
Esther Isasa Gaskue and., HABEko Didaktika Zerbitzuko ordezkaria  
Zigor Etxeburua Urbizu jn., Gipuzkoako FAko Euskararen Normalizaziorako zuzendari nagusia  
Iñaki Uribe Burgoa jn., HABEko zuzendari nagusia

**Bertaratu ezina adierazi dutenak**

Ivan Igartua Ugarte jn., HPSko Koordinaziorako zuzendaria  
Iciar Lamarain Cenitagoya and., Arabako Foru Aldundiko ordezkaria  
Maite Euba Areitioaurtena and., Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria  
Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria

**Aztergai bakarra**

HABEren zuzendari berria izendatzeko proposamena aztertzea

**Esanak eta erabakiak**

Batzordekoak agurtu ondoren, Cristina Uriarte Toledo sailburu berriak HABEko zuzendari berria izendatzeko proposamena egin du. Izan ere, HABE sortzeko legearen arabera, erakundeko zuzendariaren izendapena Eusko Jaurlearitzako Gobernu Kontseiluak egin aurretik, HABEko Zuzendaritza Batzordeak aztertu behar du gaia sailburuaren proposamenez.

Joseba Erkizia Itoitz jauna izan da sailburuak kargu horretarako proposatu duena. Proposaturikoak ez du aurkezpen handirik behar izan, duela legealdi bi kargu bera bete baitzuen, eta aski ezaguna da batzordekideentzat. Aho batez onartu da proposamena.

Horrenbestez, amaiera eman zaio bilerari.